

## KANALAK

### - **Komunikazioa:**

Gure bezeroekin komunikazioa izateko, web orriaren bitartez egingo genuke, web orrian bezeroarentzako arreta egongo litzateke eta hau telefono bidez izango da.

Bezero gehiago erakartzeko, Lurraldebusen autobusetan gure produktuaren iragarkia jarriko genuke.

Sare sozialak ere sortuko genituzke (FaceBook, Instagram, TikTok eta Telegram) eta bertan gure produktuaren argazkiak, funtzionamendua, ezaugarriak etab azalduko genituzke.

### - **Banaketa:**

Gure produktua banatzeko, bi banaketa mota erabiliko ditugu: Zuzeneko kanala eta zeharkako kanala.

- Zuzeneko kanala: kanal hau, gure web orritik gure produktua saltzeko erabiliko genuke.
- Zeharkako kanala: kanal hau, Amazon, Costa Norte, Donostiako dendan, gure produktua saltzeko erabiliko genuke.

### - **Salmenta ondorengo zerbitzuak:**

Salmenta ondoren konpontze zerbitzua eskainiko dugu, produktuak ekoizpen arazo bat badu, guk konponduko genuke dohainik. Arrantza-karreteak hornitzaileen fabrikara eraman eta bertan konponduko lukete.

Bezeroak produktua puskatuko balu, eta garantiaren epetik kanpo balego, arrantza-karretearen konponketa eskainiko genioke. Konponketa honek bezeroak ordaindu beharko luke.